

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urtarrilak 17


Kirol Sariak 96

**Interesen jeitsierak arduratuta bazauzka,
zatoz gure kontsultara.**

Interes-tipoen jeitsierari aurre egin nahi badiuzu,
Euskadiko Kutxak tratamendu pertsonalizatua
gomendatzen dizu zure aurrezkientzat.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA




LILURA
Edertze Institutua

**DEPILAZIO
PROGRESIBOA**

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Uda honetan eroso eta seguru sentitzeko.

Has zaitez oraintxe!

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 76 31 71



TORREALDAY

aholkulari kontsultoreak



- arlo fiskala
- kontabilitatea
- frankiziak
- giza baliabideak
- arlo laborala
- aseguruak
- auditoriak
- arlo judiziala
- finantza arloa



Bidekurutzeta, 6 - 2. ezkerre
Tlf. eta faxa, 76 53 80

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Maki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Karpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Mariji Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Eneko Azkarate

Portadako argazkia:

Hario Azkargorta

Banaketa:

Txanbongorri taldea

Tirada:

4.200 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IÑIGO IGARTUA Txirrindularia

- Kultur Etxeko erakusketan bizikleta erakusketa antolatu duzue...

- Bai, Francesco Moser txirrindulari italiarrak munduko orduko errekorren saiotarako 1984an eta 1994an erabilitako bizikletak ikusi ahal izango dira. 84an errekorra lortu zuen Mexikoko hirian, 51,151 Km. eginaz eta handik 10 urtera, nahiz eta munduko errekorra ez lortu eta erretiratura egon ondoren, bere marka hobetu zuen, 51, 840 Km.rekin. Bigarren saio honetan erabilitako bizikletarekin txirrindulariak arraultza itxura hartzen du, bularra manillarretik oso gertu doalako, ziklista oso uzkurtuta agertuz. Bi bizikleta hauek orijinalak dira eta horrez gain



iazko Olinpiadetarako Moserrek Italiako taldearentzat egindako modelo bat izango da.

- Erakusketa argazkiekin osatuko da.

- Jesus Aranzabalek lagatako argazkien bitartez garai bateko txirrindularitza nolakoa zen ikusi hal izango da eta Lokatza taldearen historia azaltzeko argazki dextente ere jarriko da.

“Orduko errekorren saioetan Moserek erabilitako bizikletak izango dira ikusgai”

I T U R R I O N E T I K

San Martini buruzko liburua kaleratuko da otsailerako

Datorren otsailaren 1ean eta 2an Udal Pilotalekuan izango den *San Martinen estampa* ikuskizunera joaten diren guztiei Miguel Angel Elkoroberezibar irakasleak idatzitako *San Martin. Gurutzebidea eta bidegurutzea (1597-1997)* izenburuko liburua banatuko zaie. Elkoroberezibarrek San Martinen bizitza eta heriotza nolakoak izan ziren kontatzen du aipatutako lan horretan eta horretarako San Martinen garaikideen testigantzetan oinarritu da Miguel Angel. Liburuak 80 orrialde inguru ditu, koloretan inprimatuko da eta Miguel Angelen testua argazkiez lagunduta joango da.

E S A N
D U T E

“Mugarik gabeko pailazoak erakundea ordezkatuz El Salvadorra joan garen hiru taldeok antzerako klown estiloa lantzen dugu.

Ez da hurrei bereziki zuzendutako klown estiloa baizik eta gazte eta helduengana ere heltzeko asmoa daukagu. Azken batean, terapia modura, guztiok daukagu umorearen beharra”

VIRGINIA IMAZ
Oihulari Klown-ekoa
EL DIARIO VASCO

“Gutxienez 96a bezain ona izatea eskatzen diot urte berriari. Bikotekako txapelketako txapela lortzea gustatuko litzaidake baina zerbait eskatu behar izango banu banakako titulu bat eskatuko nuke. Nire ametsa banakako txapela lortzea litzateke. Agian nire posibilitateetatik kanpo dago hori baina lau t'erdia ere oso polita da eta nire buruari erakutsi diot distantzia horretan oso ondo jokatu dezakedala”

AITOR ELKORO
Pilotaria
EL DIARIO VASCO



LA VERDAD SOBRE PERROS Y GATOS

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



INDEPENDENCE DAY

Domeka: 11:30 (Matinala).



EL CALLEJON DE LOS MILAGROS

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Uma Thurman** aktorea ezagunak (*Pulp fiction*, *Henry & June*) protagonizatutako enredu komedia. *Abby* (**Janeane Garofalo**) irrati saio bateko esataria dugu eta argazkilari batek (**Ben Chaplin**) bere saiora deituko du txakurrak ematen dizkion arazoak azaltzeko. *Abbyk* *Brian* argazkilaria ezagutzeko aukera izango du baina bera joan beharrean *Noelle* (**Uma Thurman**) bere laguna bidaliko du zita horretara...

▼▼ Joan zen urtean ikuslerik gehien erakarri zuen filmetako bat dugu hauxe. Estralurtarrek mundu zabalean eraso bati ekingo diote eta Estatu Batuetan talde bat osatuko da arrisku horri aurre egiteko. **Will Smith** ezaguna (*El principe de Bel Air*) eta **Jeff Goldblum** (*Parque Jurasico*) errepartoan.

▼▼ **Jorge Fons** mexikarrak zuzendutako filme honek epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen Berlingo Jaialdian, 1995ean. Filmea, Literatur Nobel Saria irabazi zuen **Naguib Mahfouz** idazle egipziarraren nobelan oinarrituta dago eta zuzendariak El Cairon gertatutakoa Mexikoko hirira eraman du. **Salma Hayek** eta **Ernesto Gomez Cruz** aktoreekin.

Deiak

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten die herriko odol emaleei eguaste-nean, hilak 22, Seminarioan egingo den odol ateraldian parte hartzeko. Odol ateraldia arratsaldeko sei terdian hasiko da.

▼ **Oscar Barrera** margolari lasartearraren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **EAJ-PNVren batzarra.** Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak dei egiten die alderdikideei gaur, hilak 17, Batzokian egingo den batzarra joateko. Batzarra arratsaldeko 8etarako dago iragarrita.

▼ **Erakusketa.** Francesco Moser italiarrak erabili eta prestatutako bizikletak Kultur Etxean.

Ogia

▼ **Domeka 19:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 17:** Puy.
- ▼ **Zapatua 18:** Guallar.
- ▼ **Domeka 19:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 20:** Estella.
- ▼ **Martitzena 21:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 22:** Camacho.
- ▼ **Eguena 23:** Puy.

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnua: 76 23 79 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 11 71 ARRASATE

San Antongo jaiak

Auzotako urteko lehenengoak astebukaeran

Astebukaera honetan San Anton auzoko jaiak ospatuko dira Bergaran. Atzo, eguena, eman zitzaizen hasiera jaietara eta astebukera honetarako hainbat ekitaldi iragarri da. Gaur, San Anton eguna, auzoko anaidearen bilera, San Anton ermitara igoera eta eliztarren eskaintza eta ondoren Meza Nagusia izatekoak ziren goizean. Felix Maiztegi Jai Batzordeko kidea dugu eta bere hitzetan, *"anaidearen bilera horretan auzoko gauzak komentatzen ditugu eta azkenaldian zeresan ugari eman duen ermita izaten da denon abotan. Maltzaga-Urbina edo Eibar-Gasteiz autopistaren proiektuarengatik auzotarrak nabiko kezkatuta daude ermitaren etorkizunaz"*.

Bihar, zapatua, eguerdiko 12etan txapligu eta suzko erroberaren botatzea egingo da, ordubaterako txikiteoa iragarrita dago eta arratsaldean, berri, 4retan X. Mus Txapelketa jokatu da Zubiberri sagardotegian. Izenematea Zubiberrin bertan egin behar da ordubete lehenago eta sariak hona: hauek izango dira: txanpaina eta bildots bat



San Antongo auzotarrak kezkatuta daude ermitaren etorkizunarekin autopista dela eta.

irabazleentzat, bi untxi eta txanpaina bigarren sailkatzen direnentzat, 3. postua eskuratzen dutenek kilo bat sahieski eta txanpaina eramango dute eta laugarren sailkatzen direnentzat, azkenik, pattarra izango da.

Arratsaldeko 6etan txapligu eta suzko erroberak izango dira, 7etan txikiteoa eta sari banaketa eta gaueko 9etan afari herrikoia Zubiberri sagardotegian.

Krosa domekan

Domekan goizeko 8etan txapligu botatzea eta kanpai iraulpena izango dira eta goizeko 11etan Umore Ona abesbatzak alaitutako Meza Nagusia. Eguerdian, XIX. San Antoneko krosa jokatu da. Felix Maiztegi azpimarratzen duenez, *"Bergaran jokatzeko den krosik veteranoena da San Antonekoa. Hasieran lau katu ibiltzen ginen eta ermitaraino igo behar izaten*

zen orduan. Baina orain dela urte batzuk ibilbidea aldatu behar izan genuen labankaden ondorioz jendeak kolpeak hartzen zituela". Probaren ostean salda eta txorizoa banatuko dira eta jarraian erroberia izango da. Eguerdiko 12:30etan herri kiroletako probak jokatu dira, ordubatean haurrentzat txapelketa, ordubietan txikiteoa eta sari banaketa eta 5etan, txapligu jaurtiketa.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Berri ona

Irakurri berri dut, Bergarako frontoian berriz ere profesionalen pilota partiduak antolatuko direla aurrerantzean. Pilota maite dugunontzat ezezik, herri guztiarentzat ere pozteko moduko notizia da. Guztioi egingo digu mesede. Urte askotan Udal Pilotalekua oso garrantzitsua izan da Bergararentzat. Azken boladan, ordea, etenalditxoan izan da eta hori igarri da kaleko giroan. Eskerrak afizionatu eta gazte mailako partiduak, batzuk oso ikusgarriak, gainera, antolatu direla!!

Udalak eta Asegarecek akordioa lortu ei dute eta badirudi astero izango ditugula goi mailako pilota partiduak Bergaran. Zaletuok eutsi beharko diogu erronkari aurrerantzean. Frontoira zenbat eta jende gehiago joan, jaldialdi gehiago eta garrantzitsuagoak antolatu baitira.

L. GABILONDO

Aldez aurretik esker mila

Musika Eskolak eskerrak eman nahi dizkie San Martin Agirreraren heriotzaren 400. urteurrena ospatzeko antolatuko diren ekitaldiak aurrera ateratzeko laguntza eskaini duten dendari, enpresa eta erakunde guztiei.

Era berean, diruz laguntzeko prest egongo liratekeen dendari, enpresa edo erakundeei eskatu nahi die, antolatzaileekin harremanetan jar daitezela hil honen 23a baino lehen, inprenta lanak denboraz egitea komeni baita.

Gehiago luzatu barik, San Martinen Estanpa ikuskizuna aurrera ateratzeko lagundu dutenei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek.

SAN MARTINEN ESTANPA IKUSKIZUNEKO
ANTOLATZAILEAK

Angiozarko Bailarako Batzarrari

Irakurri dut zuen erantzuna eta lehenengo esan nahi dizuedan gauza da, nire asmoa ez dela inor "aho zabalik" uztea, nire "jakinduriarekin". Bakarrik nahi nuen agertu sasoi hartako "zurrumurrua" oraingo AHTren inguruan dabilzan gora beherekin. Nire azkenengo berriak hauek dira: ez dela Angiozartik pasatuko tren berri hori. Bilbotik etorriko den burdin-bide berriak bat egingo du Gasteizkoarekin Arrasate inguruan. Horregatik Udala aldetik joango da, joango bada, bide berri hori.

Bestalde, ni Donostian bizi arren, ez naiz ahazten nire jaioterriarekin, baina oraingo sasoiaren, zuek erabaki beharko dituzue egunero sortzen diren problemak eta ziur nago ondo zuzenduko dituzuela.

Bukatzen dut angiozartar guztiei bihotzez Urte berri ona opatuz.



ERROTABARRIKO PAULO

Publizista berria

Kristina Romero, 22 urteko bergararra izango da hemendik aurrera Berrigarako publizista berria. Turismo ikasketak eginak ditu Deustuan eta Udaleko Turismo Bulegoan ibili da lanean. Kristinak orain arte Alex Azkaratek egiten zuen lana egingo du aurrerantzean. Berarekin harremanetan jartzeko 76 03 97 telefonora deitu dezakezue.



Tiira biraka



ALEX UGALDE

Kapirixoren ireera

Kapirixok Oñatiko Uribarri auzora egun erdirako irteera antolatu du domeka honetarako. Bergararentzako 10:00etarako iragarri da irteera Beheko estazioan. Joateko kotxeak izango dira. Mendiko botak eramatea komeni da eta hamarretakoa egiteko norberak eraman beharko du.

Aratuzteak

Otsailaren 7, 8, 9 eta 11n ospatuko diren karnabaletako jai egitaraua ia prest dago. Old Boys Quintet taldearen jazz kontzertua, Mal de ojo eta Los Moratxos taldeekin dantzaldia, Wonder Brass metal boskotearen emanaldia, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizuna, eta Gozategi anaiekin dantzaldia ragarri dira.

Asegarcek ia astero antolatuko ditu pilota partiduak Udal Pilotalekuan

Victoriano Gallastegi alkateak eta Pedro Garcia Asegarceko kontseilariak hitzarmena sinatu zuten asteazkenean Udaletxean. Biak pozik agertu ziren lortutako akordioarekin. *“Azpimarratzekoa da Bergarako Udalaren jarrera, hasiera-hasieratik interes berezia azaldu baitu herriko frontoia pilota profesionalak gaur egun dituen beharrei egokitzeko. Eta argi laga nabi dut, punta-puntako partiduak antolatuko ditugula Bergaran”* esan zuen Asegarceko kontseilariak.

Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, Bergarako Udalak Asegarceri lagako dio Udal Pilotalekua datozen bost urteetan profesional mailako pilota jaialdiak antolatu ahal izateko. Errentaren prezioa urtean zehar antolatzen diren jaialdien arabera izango da. Lehen 25 jaialdiek 115.000 pezetako errenta izango dute bakoitzak. 26. pilota jaialditik 47. erakoek, biak barne, 50.000 pezetakoa eta 48. jaialditik aurrerakoek, 30.000 pezetakoa. Errentaren prezioa hil bakoitzaren lehen egunetan likidatuko da, aurreko hilean eskainitako pilota jaialdien arabera.



Asteazkenean sinatu da Udalaren eta Asegarceren arteko hitzarmena.

25 pilota jaialdi baino gehiago

Asegarcek urtean zehar gutxienez 25 pilota jaialdi antolatu beharko ditu eta horien artean derrigorrezkoak izango dira honako hauek: Erramu Zapatukoa, Pazkuetako larunbat, igande, astelehen eta asteartekoa, San Martin egunekoa eta Nati-bitate egunekoa. Bestalde, gutxienez bi jaialdi telebistatik emateko konpromezua hartzen du. Pedro Garcia Asegarceko kontseilariak adierazi zuenez, *“argi daukagu urtean 25 pilota jaialdi baino gehiago antolatuko ditugula. 47 badira*

hobe. Antolatzen den jaialdi kopurua zalegoaren erantzunaren araberrakoa izango da. Bergarako eta inguruko zalegoa berriz ere frontoira ekarri nabi dugu”.

Pilota jaialdiei lehen-tasuna emango die Bergarako Udalak, bestelako jarduera edo jaialdien aurretik. Hala ere, kasu berezietan, esate baterako datorren otsailaren 1 eta 2an antolatuko den San Martinen Estampa ikuskitzunaren antzekoetarako, Udalak aukera izango du jarduera edo jaialdiren bat antolatzeko, beti ere jaialdia baino bi hilabete lehenago Asegarceri jakinarazita.

HILDAKOAK

Anbrosia Alberdi Iribekanos
Urtarrilak 13, 84 urte.

JAIOTAKOAK

Elisa Sierra Izquierdo
Urtarrilak 7.

Joel Gomez Jimenez
Urtarrilak 9.

Miren Blazquez Gutierrez
Urtarrilak 10.

Mikel Campaña Horrillo
Urtarrilak 11.

Iker Elizburu Elgarresta
Urtarrilak 12.

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Udalaren eta Asegarceren arteko hitzarmenari baietza

Astelehenean Udalbatzak egindako ez ohiko Osoko Bilkuran Udal Pilotalekua hurrengo bost urteetarako errentan hartzeko Asegarce eta Udalaren arteko hitzarmenari oniritzia eman zioten indar politiko guztiek. Bestalde, hirigintza batzordeak egindako hainbat gastu proposamen ere onartu ziren. Iraburuko ur-gordailua kontsolidatzeko erabakia hartu zen eta Agarre-Etxeberriko ur gordailua botatzeko, berriz, 467.828 pezetako aurrekontua onartu zen. Halaber, Bergarako gune historikoaren erreabilitaziorako Plan Bereziaren proiektua egiten ari diren Inaki Aspiazu eta Jabier Ieregi arkitekoei 2.320.000 peza aurreratzea onartu zen. Plan Bereziak gain, herriaren erdian dauden etxeetako edo interes historikoa duten etxeetako fatxadak konpondu eta pintatzeko dirulaguntzak banatzen ditu Udalak urtero. Asteleheneko Plenoan 1.765.000 peztako dirulaguntza onartu zen.

Igerilekuak itxita

Gipuzkoako infantil mailako igeriketa txapelketa jokatu dela eta, zapatuan egun guztian zehar eta domeka goizean itxita egongo dira piszinak.

Asteartean huelga

Josu Arkauz presoak Gobernu frantziarrak Espainolari entregatu izanagatik protestatzeko huelga eta manifestazioa egin zuten martitzenean herriko ikastetxeetako ertainetako ikasleek.



Astelehenean ateratako argazkian, Geysen Gastech, S.R. enpresa berriko langile eta buruak.

Vaillant eta Fagorrek lehen berogailua egiteari ekin diote


San Juango lantegi berrian lanean hasi dira dagoeneko

Fagorrek eta Vaillant enpresa alemaniarrek elkarrekin sortu duten Geysen Gastech, S.R. enpresa berriak lehen gas berogailua egiteari ekin zion astelehenean San Juango lantegian. Lehen fase honetan Vaillant-en modelo bat egingo dute hilabete t'erdi Alemanian eman duten 35 langileek. Apiril aldera, beste bi modelo egiten hasiko dira eta 60 langile berri sartuko dira. 60 langile berri hauek aukeratzeko prozesua egun hauetan egiten ari dira. 1998ko urtarriletik aurrera, berriz, 450 lagun arituko dira enpresa berrian lanean eta 800.000 berogailu produzituko dira urtean. 450 langile horietatik 200 inguru berriak izango dira eta gainontzekoak, berogailuak egiten dituen Arrasateko

Fagorrekoak izango dira. Fagorrek eta Vaillant-ek osatu duten enpresa berria mundu mailako lehenengoa izango da gas bidezko ur berogailuen sektorean. Geysen Gastech, S.R. enpresa berriaren inaugurazio ofiziala hil honen 28an egingo da.

Fagor Ontzigarbigailuak enpresak San Juanen zituen pabiloietan kokatuko da Geysen Gastech, S.R. eta Fagor, Edesa, Candy, Electrolux eta Vaillant-en markentzako berogailuak egiteko.

Enpresa berrian %50nako partizipazioa izango dute Fagorrek eta Vaillant-ek. Hiru buru izango ditu: Fagorreko Eukeni Egurbide, industria produktioaz arduratuko da eta Vaillant-eko Joachim Meyer eta Otto Northen berrikuntza eta kalitate arloez.



Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A**

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

14-16 urte artekoekin animazio taldea sortuko du Jardunek

Eurak baino gazteagoak direnekin lan egiteko

Jardun Elkarteko Gazte Taldeak 14 eta 16 urte bitarteko gazteekin animazio taldea osatuko du gartzela zaharrean. Animazio talde honen helburua, haurrentzat era askotako ibarduera antolatu eta dinamizatzeko izango da. *“Asmoa 14 eta 16 urte arteko gazteekin tailer moduko bat antolatu eta talde dinamika sortzea da. Gazte hauek haurrentzat antzerki saioak, jolasak, eskulanak edota denborapasak antolatu eta aurrera eramateko prestatzeko aukera izango dute, gero eurak arduratu daitezkeen hurrekin lan egiteaz. Horrez gain, gartzelan antolatu daitezkeen ibarduerez gain, herrian antolatzen diren beste era batzuetako ibarduera dinamizatzeko aukera ere izango dute”*

adierazi digu Edu Orgazek, animazio taldeko arduradunak.

Animazio taldea zapatu eta domeka arratsaldetan bilduko da. Dagoeneko 13 gaztek badihardute animazio taldean lanean, baina taldeko kide izan nahi dutenek izena eman dezakete gartzela zaharrean otsailaren 3a baino lehen. 3.000 pezeta ordaindu beharko dituzte, eta horren truke txartel bat emango zaie uztailean bitartean astebukaretan gartzela erabil ahal izateko.

Gartzela zaharra astebukaeretan zabaltzen da gazteentzat. 72 gaztek atera dute gartzelara sartzeko txartela. Zapatuetan arratsaldeko 5etatik 8etara eta domeketan eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara izaten da zabalik.

Txapa Irratiaren zozketa

Txapa irratia antolatutako zozketan sarituta gertatu den zenbakia 353 da. Boletorearen jabeak irradi-kaset aparailua eramango du.

Etxeberría erloju dendaren zozketa

Etxeberría erloju eta bitxitegi dendak Gabonetan zozketatu zituen bi txartelak honako bi zenbaki hauei egokitu zaie: 200.000 pezetako bonoa dendan gastatzeko 6.816 zenbakiari, eta 100.000 pezetakoa 4.877ari.

Argazki ikastaroa

Pol-Pol Argazki Taldeak argazki ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 18, 19, 20, 25, 26 eta 27an egingo da arratsaldeko 7:15etatik gaueko 9ak arte Zabalotegiko lokalean. Interesa duenak izena eman dezake Udal liburutegian, Kultur Etxean.

Literatur lehiaketa

Udaleko Euskara Batzordeak XII. Literatur Lehiaketa konbokatuko du Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenentzat. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanak entregatzeko epea apirilaren 11n bukatuko da. Informazio gehiago Euskara Batzordean (77 91 66).

Euskararen unibertsoa

Euskararen unibertsoa mugimenduak martxoaren 7an eta 8an egingo dituen jardunaldietan aztertuko diren hiru txostenak jasotzeko interesa dutenek, AEK Akulu Euskaltegian, Udal Euskaltegian edo Jardun Elkartean jaso ditzakete.



Animazio Taldeko kide izan nahi duenak Gartzela Zaharrean eman dezake izena.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Ekologia

Zuhaitz mintegia

- **San Martzialen mintegi bat prestatu berri duzue...**


- Bai, Udalak eskeinitako lursail batean 20 metro karratu inguru duen mintegi txiki bat prestatu dugu azken aste hauetan zehar. Euskal Herriko Unibertsitatean bertako basoen errestaurazioaren inguruko proiektu batean Bergarako jendea lanean dagoela aprobetxatuz, hauen aholkuak jaso eta mintegia prestatu dugu: jadanik lursaila prestatu dugu eta haziak erein. Oraingoz hiru zuhaitz mota aukeratu ditugu, horrek baitira alboko lursailetan basoa berreskuratzeke oinarrizkoak direnak: artea (*Quercus ilex*), haritza (*Quercus robur*) eta gaztainondoa (*Castanea sativa*). Lehenengo ereite hauek aurrera atera ondoren seguraski inguruaren berezitasunen arabera zuhaitzekin batera landatu behar diren zuhamuskekin ere hasiko gara (zuhandorrak, urritzak, elorriak edo erratzak esate baterako). Dena den, mintegi txikia egin nahi izan du-

gu eta ez dugu inoiz kopuru oso handirik aterako.

- **Haziak non lortu dituzue?**

- Gehienak Bergara inguruan jaso ditugu, udazkenean zuhaitzetik erortzen direnean joan eta batu. Hala ere, espezie bakoitzarentzat jatorri desberdinak izaten saiatu gara eta landatuko diren inguruko haziak lortzen ere bai.

“Mintegi honetan sortuko diren zuhaitzak inguruko lursailetan erabiltzeko asmoa daukagu”



Argazkian San Martzial inguruan jarritako mintegia.



IÑAKI IRIZAR
(Mendia Bizirik)

- **Zein da zuen lanaren helburua?**


- Egia esan helburu bat baino gehiago dago. Alde batetik, han dagoen arte-multzo txikia indartu nahi dugu, espezie horrentzat egokia den sailean landatuko diren arteak mintegian (sailaren ondolan) lortuz. Beste alde ba-

retik, inguru haietan horren beharrezkoak diren gaztainondoak eta haritzak ere lortu nahi ditugu, landaketa desberdinetan desberdinetan erabili ahal izateko.

Azkenik, mintegi txiki honetan jasotako esperientziak posible dela erakutsiko balu (eta horrela izango dela uste dugu), interesgarria izango litzateke eskola guztietan honelako mintegitxoak martxan jartzea, ikasleek bertako zuhaitz eta zuhamuxken berreskurapenean parte har dezaten: haziak jaso, erein, landarea zaindu eta landaketa definitiboa burutu. Prozesu guztia bi urtean ikus daiteke eta beraz, egiteko modukoa da.

- **Zuhaitz eguna San Martzialen ospatzen da azkenaldian. Hemendik aurrera zuek ateratako zuhaitzak landatuko dira?**

- Bueno, nik uste dut dena behar dela. Esan dugun bezala mintegi honetan lortuko diren zuhaitzak inguruko lursailetan erabiltzeko asmoa daukagu, baina Udalak urtero egiten dituen landaketak ere beharrezkoak dira. Oso interesgarria da bestelako haritz eta gaztainondoak ere San Martzialeko inguru hauetan landatzen jarraitzea. Mintegia eta bestelako landaketak osagarriak izango direla uste dugu.



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Ikurriñari bai

Hogei urte Udaletxean Ikurriña jaso zenetik

San Sebastian egunaren bezpera berezia izan genuen orain dela 20 urtekoa Bergaran eta inguruko zenbait herritan. Gerra Zibilaren garaietatik debekatuta egon ondoren, 1977ko urtarrilaren 19an Ikurriña jaso zen Bergarako Udaletxeko balkoian. Sei mila lagun inguru bildu ziren gau hartan Plazan eta festa giroa izan zen nagusi.

Arrasate, Oiartzun, Azkoitia, Hernani eta Bergarako alkateak Madrilen izan ziren urtarrilaren 18an, Rodolfo Martin Villa orduko Gobernazio Ministroak deituta. Biler hartako eztabaida-puntu nagusia Ikurriñaren legalizazioa izan zen eta Euskal Herri-

1977an Udaltzako osatzen zutenak: Goian, Ramiro Lopez, Antonio Irazola, Jose Luis Elkoro, Regino Valle, Maria Angeles Manso, Jesus Mari Sebal eta Carlos Soriano; makurtuta, Anton Garitano, Ramon Mendibil, Jabier Amenabar eta Juan Mari Otaegi. Argazkian Angel Azkarate falta da. JABIER LAZPIUR



ko 30 herri ordezkaten zituzten alkateak pozik bueltatu ziren Madrilen lortutakoaz, Gobernazio

Ministeritzak Ikurriñaren erabilera eta exhibizioa onartu zituelako. 1977ko urtarrilaren 19ko El Dia-

rio Vasco egunkarian bileraren berri jasotzen zen portadan eta, titular nagusian, "ultima hora" izenburupean, gau hartan Euskal Herri osoko udaletxetan Ikurriña jaso zitekeela iragartzen zuen.

San Sebastian egunaren bezperan Bergarako Udaltzako ez-ohizko Plenoa deitu zuen arratsaldeko 7etan. 6.000 lagun inguru bildu omen ziren Plazan eta Plenoa megafoniaz jarraitzeko aukera izan zen. Plenoa hasi baino lehen Juan Martin Elexpuru hilaren 22rako euskararen koofizialitatearen alde Donostian deituta zegoen manifestazioa bertan behera geratzen zela adierazi zuen mikrofonoen bitar-



1977ko urtarrilaren 19ko Plenoan Ikurriñaren jasotzea onartu zen aho batez. ROMAN LARRAÑAGA

tez. Manifestazioaren orde euskararen aldeko firma bilketa egin eta euskararen koofizialitatearen aldeko manifestuak eta pegatinak banatuko zirela adierazi zuen Elexpuruk. Jarraian Plenoari hasiera eman zitzaion eta Juan Luis Bikuñak Ariz-Ondo aldizkariaren 3. zenbakian idatzitako kronikan jasotzen denez, "Jose Luis Elkororen atzetik, Iraola eta Otaegi zinegotziak sartu ziren Pleno aretora

ondoren Udaletxeko balkoian eskegiko zen Ikurriña eramanez". Bikuña oso zehatza da Pleno hartako datuekin, ia-ia idazkari lanak eginaz: "Zazpiak eta 11 minutu zirenean Jose Luis Elkoro alkateak Plenoa hasteko baimena eman zuen".

Aurretik Etxarri-Aranazeko Udalbatzaren akordioak izan ziren aztergai eta zinegotzi guztiek euren adostasuna azaldu zuten. Idatzi hartan amnistia osoa presoentzat, euskararen koofizialitatea eta Hego Euskal Herriko lau probintzientzat integrazio

forala eskatzen zen. Ondoren alkateak Gobernazio Ministeritzara egindako bisitaren berri eman zuen eta Ariz-Ondo aldizkarian (1977ko martxoa) orduan alkateak esandakoa jasotzen da: "gure argumentazioak nabiko izan dira ministroak Iku-

Euskal Herriko sinboloa Ikurriña izatea eskatzen zuen testua irakurri ondoren, zinegotzi guztiek beren adostasuna azaldu zuten



Ikurriñaren gaiak ikusmin handia sortu zuen bai Pleno aretoan eta bai Plazan bildutako jendetzaren artean. ROMAN LARRAÑAGA

BASTER

J A N T Z I D E N D A
T. ARANZADI TLF., 76 10 08

Zatoz oraintxe!
Betiko kalitatea erdiprezioan.

rrinari ofizialitatea emateko. Guztiak pozik itzuli gara Euskadirentzat oso garrantzitsua den sinbolo bat legalizatzea lortu dugulako. Hala ere, oraindik lanean jarraitu behar dugu gure preso eta exiliatuak euren etxetara bueltatu daitezen. Guztiok konbibentziaren alde lan egin dezagun, iragana ahaztu eta ibilbide berri bati hasiera eman diezaiogun". Alkaterearen hitzen ondoren, Euskal Herriko sinboloa Ikurriña izatea eskatzen zuen testua irakurri zen. Mozioa aho batez onartu zen eta alkateak Antonio Irazola alkate ordeari laga zion Ikurriña jasotzeko ohorea.

Irazolak 72 urte dauka gaur egun eta prime-ran gogoratzen du momentu hura: "neu nintzen zinegotzi modura denbora gehien neramana eta Elkorok detaile hori eduki zuen nirekin. Egia esan, sorpresan harrrapatu ninduen. Plaza bete-bete eginda zegoen eta niretako oso hunkigarria izan zen guzti hura".

Kazetariak nola bizi zuten

Bikuñak kazetaritzan bere lehen urratsak ematen zituen orduan eta bere hitzetan, "Euskal Herri-rako pauso garrantzitsua izan zen hura, Ikurriña berreskuratzean beste es-

Antonio Irazola

Ikurriña Udaletxeko balkoian jaso zuena



Egun historiko hartan Bergarako Udaletxeko balkoian Antonio Irazolak, Udaltzako kide betaranoenak jaso zuen Ikurriña.

Irazolak gogoratzen duen moduan, "Gabonetan herriko monja denak bisitatzeko ohitura geneukan; Gabon egunean Santa Agedara joaten ginen hango Bergarako monjak bisitazera eta Natibitate egunean, berriz, Bergaran bertan zeuden monjak bisitazten genituen. Monja Zaharretan egon ginenean Ama Nagusiari eurentzako enkargu bat nuela esan nion, Ikurriña bat jostea hain zuzen ere eta gusto haundiz hartu zuten enkargua, josten ordu asko ematen zituzten eta".

"Ikurriña ez da batarena edo bestearena. Ikurriña euskaldun guztiona da"

Irazolaren arabera Ikurriña pilo bat egin zituzten garai haietan Bergarako Monja Zaharrek; "Arrasateko alkateari guri egin zigutena erakutsi nion eta haren erantzuna zera izan zen: Mecaguen la puñeta! Enkargau niretako beste bat!". Irazolak Bergaran jarritakoak Lizarran

amaitu zuen, hurrengo egunerako behar baitzuten Ikurriña Lizarran. "Monja Zaharrek beste bat egin zuten guretako, Ikurriña pilo bat egin zituzten".

Irazolak garai haietatik oso oroitzapen onak ditu: "Oso epoka polita izan zen eta Udaletxean ginenon artean ere oso giro ona zegoen. Pentsa, oraindik ere urtero hiruzpalau aldiz biltzen gara... Urtarrilaren 19an afaria eta uztailaren 21ean (Foruen abolizioaren urteurrena) bazkaria egiten dugu. Gaur egungo egoera politikoa? Nahiko larri ikusten dut. Bata besterakin gerran gabiltza eta horrek ez nau batere konbentzitzen. Ikurriña ez da batarena edo bestearena. Ikurriña euskaldun guztiona da".

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Jose Luis Elkoro

Orduko Bergarako alkatea


1977ko urtarril hartan Jose Luis Elkoro zen Bergarako alkatea. Beste lau herritako alkateekin batera Madrilen izan zen Martin Villarekin elkarrizketatzeko eta bueltan Udaletxean egindako ez-ohizko Plenoan Ikurriña jasotzea erabaki zen.

- Nola gogoratzen dituzu egun haiek?

- Franco hil ondoren Euskal Herriaren asmoak betetzeko itxaropena genuen eta egoera erreibindikatioa nabaria zen. Baina nahiko egoera berezia zen hura, alde batetik Francoren instituzioak martxan zeudelako eta bestetik instituzio horien kontrako jarrera gero eta haundiagoa zelako. Udaletxean ere orduko egoera aldatzearen aldeko lana egiten genuen eta horren lekuko uztailaren 21ean Bergaran izandako ekitaldi politikoa aipatu daiteke. Foruen abolizioaren lehen mendeurrena zen orduan eta izugarritzko jendetza etorri zen. Bergaran izan den ekitaldi politikoa garrantzitsuenetakoa izan dela esango nuke.

- Nolako lotura izan zuen horrek Ikurriñaren legalizazioarekin?

- Etxarrin Bergaran izandako ekitaldiaren antzeko bat antolatuta nahi izan zuten eta nahiz eta gonbidatuta egon ezin izan genuen Etxarrira iritsi jarritako kontrolengatik. Etxarritik bueltan 5.000 lagun inguru bildu ginen Bergaran eta ekitaldi politikoa bat burutu genuen. Gure erreibindikazioak hiru ziren nagusiki: Amnistia batetik (preso pila bat zegoen espetxeetan), euskararen koofizialitatea bestetik eta, azkenik, Lizarrako Estatutuaren parera jartzea; ia autodeterminaziora heltzen zen 1931n onartutako Lizarrako Estatutua. Eta aktu hori egiten ari ginen bitartean Martin Villak deitu zuen Madrilera bilera baterako joateko esanez. Martin Villa nahiko urduri zegoen ordurako eta aurretik



joku maltzur bat egin nahi izan zuen. Hemen izan zen baina lehenbizi Nafarroako alkateekin bildu zen eta ondoren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkateekin bilera egin zuen Gasteizen. 30 udaletako ordezkariak denak batera biltzea eskatzen genuen eta ez ginen bilera haretara azaldu, horregatik Madrilera joateko eskatu zigun eta 5 ordezkari joan ginen hara.

- Nolako eztabaida izan zen Madrilan?

- Ikurriñaren ofizializatzearren inguruan izan ginen eztabaidan. Guk Euskal Herri osorako eskatzen genuen baina eurentzat Nafarroarako Ikurriña onartzea gehiegizkoa zen. Bilera oso tensoa izan zen, 3 ordu inguru egon ginen bilduta eta hasieran ez zeuden Nafarroarako

Ikurriña onartzeko prest. Azkenean burua makurtu, onartu egin zuten gure eskaera eta San Sebastian egunaren bezperan Ikurriña jaso ahal izan genuen Udaletxeko balkoian. Plaza jendez gainezka zegoen eta festa handia izan zen Bergaran egun hartan.

- Gaur egun nola ikusten duzu orduan lortutakoa?

- Aurrerapausu handia izan zen hura, herri askatu baten sinbolo bezala ikusten bait genuen Ikurriña. Hala ere, lurraldetasuna (Nafarroa Euskal Herria izatea) eta Euskal Herriaren burujabetasuna ziren Ikurriñaren helburu

nagusiak eta Ikurriñaren legalizatzea ibilbide horren lehen urratsa litzateke. Gaur egun Ikurriña daukagu baina antzerako arazoekin (presoak, interbentzio armatuak..., etab.) jarraitzen dugu euskaldunoi autodeterminazioa ematen ez digutelako. Gure herriari bere nortasuna ematen ez dioten bitartean ez gara normaltasun batetara iritsiko.

- Orain 20 urte abertzaleak batuago zeuden...

- Orduan ez zegoen alderdi politikorik legalizatzeke zeudelako eta herria multzo berean zegoen sartuta. Ez zegoen bereizketarik eta horrek indar handia ematen zion borrokari. Madrilen estrategia, bestalde, beti izan da euskaldunak zatitzea eta ondorioz zatituta gaude gaur egun.

“Gaur egun Ikurriña daukagu baina antzerako arazoekin jarraitzen dugu euskaldunoi autodeterminazioa ematen ez digutelako”

“San Sebastian egunaren bezpera izanik, nik uste politika mailan Bergarak Donostiak baino ikusmin haundiagoa sortu zuela” JUAN LUIS BIKUÑA

Bikuña eta Amatiño kazetari lanak betetzen. Behean, Plenoko irudi bat. ROMAN LARRAÑAGA

pektatiba batzuk zabaldu zirelako. Jendeak kalean eta soziedadeetan zelebratu zuen eta etxe askotan agertu zen Ikurriña hurrengo egunean. San Sebastian egunaren bezpera izanik, nik uste politika mailan Bergarak Donostiak baino ikusmin haundiagoa sortu zuela, politikako gauza askotarako Bergara eredu bezala bartzen baitzen garai bartan”. Bikuñak orduan idatzitako kronikaren arabera: “Bildutakoen txalo eta Gora Euzkadien artean, Udal txistulariek Eusko Abendaren Ereserkia jotzen zuten bitartean, gaueko zortziak hamar gutxi puntu-puntuan zirela, jaso zen ikurriña. Bergarako herriarentzat historiako unerik hunkigarri eta ederrena izan zen hura. Edadekoek aurpegiak malkoz bustiak zituztela hartu zuten gertakizuna, gazteek esperantzazko irrifarrez, eta beren amen besoetan zeuden ume ugariak ikusten zutena ulertu ezinik, baina besteen emozioak kutsatuta. Une hura berbaz ezin azaltzeko modukoa izan zen. Euzkadiko ikurriña mastan jarri zutenean Eusko Gudariak gera eta Bata-suna abestu zituen berri osoak. Presoak kalera eta bestelako oihuak ere entzun ziren. Eta hala, kanta hunkigarriak abestuz eta ikurriñak astinduz, ilusi berri bat piztu zelako segurantzarekin, eman zitzaion amaiera San Sebastian bezperako egun historiko hartako ekitaldiari”.



Hogei urte betetzen dira Bergaran Ikurriña jaso zenetik. Zer da Ikurriña zuretzat?



Itziar Ortiz de Zarate

Euskal Herriaren sinboloa. Ondo gogoratzen dut Ikurriña Udaletxean jaso zeneko eguna. Ni ere Ikurriñarekin joan nintzen Plazara, emoziozantea izan zen.




Mikel Gabilondo

Euskadiko sinboloa dela esango nuke, euskaldun guztiak batzen gaituen sinboloa da Ikurriña.



Meltxor Alberdi

Euskaldun guztion sinboloa, nire ustez behintzat esanahai asko duena. Zerbait berezia sentitzen da Ikurriña ikustean.



Felix Irizar

Euskaldun guztion sinboloa, Ikurriña Euskal Herriko ikurra dela esango nuke.



Aitziber Lizundia

Euskal Herria ordezkatzeko duen sinbolo bezala ikusten dut. Gustatzen zait ikustea, batez ere hemendik kanpo nagoenean.



Mertxe Andres

Beste sinbolo bat bezala ikusten dut. Indarra galdu duen ala ez? Beharbada bai, behin gauza bat lortutakoan indarra galtzen du..., ez da lehen bezala.

Bergara Pielen

merkealdia

Aprobetxatu aukera!

Espaloia, 6 **BERGARA PIEL** Tlf., 76 20 70

MERKEALDIA

%20
Urtarrilean

KANELA

Espaloia, 10
Tlf., 76 01 83

MERKEALDIA



Satorra dabil Angiozarren

Sator: Talpidoen familiako eta Talpa generoko ugaztun intsektiboroen izen arrunta. Oso ile ugari eta beltza, eta industeko erabiltzen dituzten azkazal handiz hornitutako esku handiak dituzte. Ez dute belarrik eta begiak endekatuta daude. Lur azpian egiten dituzten zuloetan bizi dira eta zizarek eta animalia txikiz elikatzen dira. Antz handiko bi espezie daude: sator arrunta (*T. europaea*) ugariena dena, eta hau baino txikiagoa den sator itsua (*T. occidentalis*).

Bada sator klase bat, *T. europaea*-*T. occidentalis* espezieko AHT (Abiadura Handiko Trena) azpiespeziekoa, urrinetik datorrena. Eta ez zarata barik. Danok daukagu haren entzutia. Oin-ddiokan ixilik dator, baina badabil jarduna bere inguruan: bihar biharrezkua dala aurrera ein nahi bada, kalte ekologiko haundixa daukala, haura ekarteko diruik ez daola, nundik nora pasauko dan oinddio ez dala segurua (berak be ez dau jakingo, nundik nora dabilen ikusten ez badau)...

Angiozartarrak erne jarri dira, azaltzen daniel sator horren- dako ez ei dao ta zepoik, botikaik edo atxurrik, eta orduan kaltia eindda egongo da. Angiozartarrek protesta, baina satorrak entzuten ez (ez dauka belarrik).

Eta neri min emoten dost zain egotiak, gutxien uste daniel etorriko danan zain egotiak. Min emoten dost gure sustarrak jatera etorriko dala pentsatziak.

Eta goiz ederren baten, eguna zabaldu eta sator horrek jotzen dabenian, lurra mobitzen hasten daniel, alperrik izango da. Egun argiz pasauko da, lotsa gutxikin, argi-bilur haundi barik. Eta guri, gabez pasauko jaku.

Arantzazu LOIDI



Gizartea HIESaren eramale

Azken 150 urteetan gizakiak hegan egiten, elektrizitatea erabiltzen eta espazioan zehar bidaiatzen ikasi du, baina badirudi ez dugula HIESarekin bizitzen ikasi.

80ko hamarkadako "Boom"az geroztik, datuen arabera gaisotasuna finkatzen ari da, baina oraindik badira foku garrantzitsuak. Gizarteak eta instituzioek ematen du ez dakitela, ezin dutela edo ez dutela konturatu nahi. Honen kasu, hor dugu kartzetako egoera latza.

Euskal herrian, estimatzen denez, 7.000 dira seropositiboak, gehienak gizonezkoak. Sarritan ematen den transmisio mekanismoa, sanetatik barneraturiko drogen kontsumoa da, jarraian erlazio heterosexualak dituzten pertsonak daude, ondoren harreman homosexualak eta bisexualak dituztenak, azken hauetan finkatu dela esan behar da; eta azkenik, gero eta gutxiago, homoderibatuetatik datozenak (transfusio eta amagandik seme-alabei transmititutakoak).

Argi dagoena da ez direla arrisku taldeak esistitzen, baizik eta arrisku praktikoak.

Gaisotasun hau duten pertsonengan garrantzi izugarria du familiaren erreakzioak, baita gizartearen ere. Jakina da, aldi berean familiaren erreakzioan eragin nabarmena duela gizartearen erreakzioak, horregatik aukera honetaz baliatzen naiz zahar, gazte, emakume eta gizon guztioi eskatzeko gai honen aurrean bakoitzak dugun, izan dugun edo izango dugun erreakzioa aztertu eta beharrezkoa balitz egokitzen saia gaitezen. Seropositiboak diren pertsonentzat okerrera auzoan, herrian eta orokorrean gizartean sufritu behar duten eskusio, gaitzespen, ukapen edo desberdin sentiarazte injustu hori baita. Honen aurrean asko egin dezakegu bakoitzak, guztioi kalte egin baitiezaguke zuzenki edo zeharka gaisotasun honek.

Iñaki GABILONDO

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

*Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak*

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29



MUJIKA GOZOTEGIA

**BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK**

Arte kale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

■ **Bergarako souvenirrak**


Bergarara datozen bisitariei zuzenduta, **Pili Arin** Miguel Altuna

Institutuko irakasleak herriko monumentu eta gune artistikoei buruzko erliebeen bilduma egin du.

Eskultura txiki horietan interes turistikoa duten guneak landu izan ditu Pili Arinek brontzean edo pasta zeramikoa. Udalak Udaletxea eta

Plaza isladatzen duen lana eta **Agarreko garaixeari** buruzkoa erosi dizkio eskusiban eta horrez gain **Arreseko balkoia, Goiko Plaza, Etxeaundi, Ozaeta jauregia,**

Zubietako zubia, San Martin Plaza eta **Santa Marinari** buruzko lanak jarri dira salgai herriko hainbat dendatan. Pili Arinek San Martinen eskultura otsailerako amaitzea espero du. Udalaren aholkularitzarekin, lan bakoitzak etiketa bat dauka, bertan monumentuaren inguruko xehetasunak azaltzen direlarik.



■ **Argazki bikainak**


Agustin Gurrutxaga Pol-Pol Argazki taldeko kideak 2. saria lortu du euskal argazkilarien artean Gipuzkoako Argazki Elkarteak antolatutako Nazioarteko Gipuzkoa Lehiaketan. Aipatutako lehiaketan mundu osoko 400 argazkilari inguruk hartu dute parte eta, Gurrutxagak FIAP (Nazioarteko Arte Fotografikoaren Federazioa) elkartearen aipamena ere lortu du (zuribeltzean) *Baserriko bidea* izenburuko lanari esker.

Gurrutxagak ateratako argazkian **Agarre-Etxeberri** baserri ikus daiteke. Bestalde, Benito Canterok ere FIAPen selekzioa edo aipamena jaso du *Urbasa II* izeneko lanagatik.

Masterreka 24

Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak

Masterreka, 24 BERGARA



Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK


Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskapareak...



■ **Urrezko eztaiak**

Angel Balzategi eta **Esperantza Muguruza** senar-emazte bergararrek euren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten joan zen urtarrilaren 4an. Esperantzak eta Angelek 50 urte eman dituzte elkarrekin dagoeneko eta hori ospatzeko lehenbizi meza entzun zuten Monja Zaharretan eta jarraian bazkaria izan zuten Zumelaga jatetxean. Bertan 25 lagun inguru bildu ziren, tartean Angel eta Esperantzaren 5 seme-alaba eta 7 ilobak, guztiak egun ahaztezina igaroz. Eta nola ez, fetxa horren oroigarri modura goiko argazkia atera zuten. Zorionak eta eutsi osasunari!!

Zertan dihardute ba?



Juan Martin

Elexpuru 46 urteko idazle eta irakasle bergararrak beretesia aurkeztuko du datorren urtarrilaren 28an Gasteizeko Filologia Fakultatean. *Bergara aldeko lexikoa* izenburupean Elexpuru Bergaran esaten diren berbeekin 10.000 hitz inguruko hiztegia osatu du, bakoitzaren esanahia azalduz eta adibideak jarritz. Juan Martin Elexpuru Filosofian lizentzuatua da, Aranzadi Ikastolako eta UNEDeko irakasle izandakoa da, eta hainbat liburu eman ditu argitara, tartean *Alpeen itzalpean* eta *Kuba triste dago* bidaiaria liburuak.

■ **1997ko lehen bergararra**



Elisa Sierra

Izquierdo dugu 1997ko lehen bergararra. Elisa joan zen urtarrilaren 7an jaio zen Arrasateko

Ospitalean eta 3,635 Kg.ko pisua eman zuen. Elisa eguastenean bertan heldu zen bere etxera eta dagoeneko hasi da beren gurasoei lana ematen. Hala ere Julia eta Elicio bere gurasoak pozaren pozez dira egunotan, izan ere beren lehen umea baita Elisa. Zorionak!!

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTXO
ILEAPAINDEGIA

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...


Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik

Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

Adrian Arreseigor

Familiako tradizioari jarraituz, bere aiton-amonek orain 52 urte zabalduzako Zumelaga jatetxeo arduraduna dugu Adrian Arreseigor (37 urte). Aurten Zumelagak urrezko eztaiak beteko ditu oraingo lokalean.

- Laneko gauzarik onena?
- Klientea, bezeroak.
- Eta txarrena?
- Ordu asko sartu behar izatea.
- Aste barruan ala aste bukaeran lan gehiago?
- Antzera.
- Urteko zein sasoiatan izaten duzue lan gehien?
- Gabonetan.
- Jendea bazkaltzera ala afaltzera etortzen da?
- Astebarruan bazkaltzera eta aste bukaeretan afaltzera.
- Azkenaldian etorri den bezero ospetsuren bat?
- Guztiak dira ospetsuak baina bat esatekotan Sudupe diputatua.
- Zein plater da bezeroek gehien eskatzen dutena?
- Legatza kokotxa eta almejekin.
- Harritu zaituen eskaeraren bat?
- Ez, inoiz ez.
- Ardo on bat?
- Campillo, Arabar Errioxakoa.



“Ohea egitea ez zait batere gustatzen, ez naiz oso sukaldari ona eta nire espezialitatea arraultza frijituak dira.

Irla desertu batetara lagun bat, liburu bat eta lantxa bat eramango nituzke”

- Okela ala arraina?
- Okela.
- Euskal Herriko sukaldaririk onena?
- Karlos Argiñano.
- Atzerritik zein sukaldaritzatza gustatzen zaizu gehien?
- Alemana.
- Zer gosaltzen duzu?
- Kafe hutsa.
- Zein zeinutakoa zara?
- Virgo.
- Horoskopopari kaso egiten diozu?
- Ez.
- Zure bertute eta defektu bat?
- Lasaia eta burugogorra izatea.
- Zerk lotsarazten zaitu?
- Klienteren bati huts egiteak.
- Denbora libre, zertan pasatzen duzu?
- Irakurtzen.
- Irakurritako azken liburua?
- El Capitan Alatraste, Reverterena.
- Etxeko lanik gorrotagarriena?
- Ohea egitea.
- Zer moduko sukaldaria zara?
- Erdipurdikoa.
- Zure espezialitatea?
- Arraultza frijituak.
- Gustatzen ez zaizun janaria?
- Txipiroiak.
- Kinielan 300 milioi irabazita, zer egingo zenuke?
- Lehenbizi erretzeari uztea.
- Irla desertu batera eramango zenituzkeen hiru gauza.
- Lagun bat, liburu bat eta lantxa bat.

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

LIZAR

ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

margo erakusketa

oskar barrera

Nahikari Taberna

Masterreka 20 / 76 57 71

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñaten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokairuan hartuko genuke Donostian. ☎ 79 08 92 (Maidar).

Pisua konpartituko nuke Bilbon. ☎ 76 43 36.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 02 27/23 36.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 18 95.

Garajea saldu edo alokairuan jarriko nuke Santa Marinaran. ☎ 76 47 67.

Pisua alokairuan Zubiaurreko 19. zenbakian, lehen pisuan. ☎ 76 13 85.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Arkaian, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 53 13.

Pisua salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Erloju bat topatu dut Zurraderon. ☎ 76 16 57.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Kerosenozko estufa salgai egoera eta prezio onean. ☎ 76 21 71 (Amaia).

Donostian (Egian) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 50 (Gurutze).

Bainuko ispilua, toaileroa eta beste tresna batzuk oparitzen ditut. ☎ 76 39 96.

Donostian pisua osatzeko bi lagun behar dira. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Bigarren eskuko botoi-akordeoia erosiko nuke. ☎ 76 11 96.

Taberna-erretegia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 06 72.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. ☎ 79 78 26.

Siames katakumak salgai. ☎ 76 17 35.

Alemaniar artzain txakurrak (emeak) saltzen ditut. ☎ 76 53 35/76 32 14.

Logela eta frigorifikoa salgai. ☎ 78 25 85.

LANA

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

Zientzietan lizentziatuak, OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Euskara klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 15 76.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Zaharrak zaintzen ditut gaez. ☎ 76 11 11.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 20 88.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 64 60.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 16 96 (Olga).

Klinika auxiliar batek gaitxoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko, Beta-tik 3etara. ☎ 76 04 25.

DIRU KONTUTAN ARGIA GOKI EZIN

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 79 29 95

BETAURREKO BILDUMA BERRIA

bonardi '97

«MULTIOPTICAS»eko **ESKLUSIBA**

2.850

Pta.-gatik bakarrik

ERAMAN EZAZU KUTXATILA DOHAIN

J. M. Barandiaran Enp. - ORDIZIA
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2 - EIBAR
Tel. 20 05 22

LORTU -TRAVEL CLUB-EKO PROGRAMAREN PUNTUAK «MULTIOPTICAS-EKIN

R.F.S. Nº 421/96



“Aurrerantzean, serioago hasten garenean, guztiak traje berdinarekin taularatzea da gure asmoa”

“Betiko rantxerak jotzen ditugu, era guztietako publikoari gustatzen zaizkionak”

IKER MURUA, LA PARRANDA MEJICANA TALDEKOA

“Orain arteko emanaldietan jende guztia dantzan jartzea lortu dugu”

Betiko rantxerak eta abesti mexikarrak kantatzen zituzten Iruñeko Huajoloteek jarraitzaile asko izan zituzten Bergaran. Haien ildo bere-tik, La Parranda Mejicana sortu zuen herriko gazte talde batek. Iazko San Martinetan egin zuten debuta eta inoiz baino beteago zegoen plaza, dantzan jarri zuten. Andele, andele!!

- Nola hasi zineten rantxerak jotzen?

- Taldeko batzuk Huajoloteekin ibilitakoak gara. Bestalde, Pol-Poleko Dunixik antolatzen zituen mexikar festetan jotzen hasi ginen, Komite Internazionalistek ere deitu ziguten beste behin; baina benetako debuta San Martinetan egin genuen. Ni orduan sartu nintzen taldean. Zahar eta gazte, guztiak jarri genituen dantzan. Aluzinantea izan zen.

- Harrezkero, beste hainbat tokitan ibili zarete.

- Bai, Gasteizko Gaztetxean eta Sestaon besteak beste. Iruñetik eta Pasaiatik ere deitu digute, maiatzean boda bat alaituko dugu... Toki askota-



Gasteizko Gaztetxean ateratako argazkia.

tik deitzen digute. Antza denez jendeari gustatu zaio. Kantu ezagunak dira eta gazteei zein zaharrei gustatzen zaie. Erdi brometan hasi ginen eta ia ez dugu entsaiatu ere egin. Hala ere, izan ditugun aldaketan ondoren, taldea finkatu dugu. 11 lagun gaude orain eta aurrerantzean serioago ekingo diogu entsaiatzeari. Orain arte betiko rantxera ezagunen bertsioak egin ditugu, “Y volver, volver” eta horiek. Aurrerantzean abesti berriak sortuko ditugu, baina momentuz, entsaiatzeko lokalik ez daukagu.

- Zeintzuk osatzen duzue taldea?

- Asier Lazkanok, Zigor Martinezek, eta Aitor eta Asier Elorzak haize instrumentuak jotzen dituzte; Josu Zeziagak, soina; Gustavo Abajok, baxua; Jesus Martinezek eta Mikel Berasategik, kitarrak; Kepa Irizarrek, bateria; Leire Ibarzabalek eta biok abestu egiten dugu. Beste talde batzuetan, Orkesta Sinfonikoan, Udal Musika Bandan, dultzainero taldean eta beste hainbat saltsatan sartuta daude taldekide batzuk. Guztiok elkartzea ez da lan erraza. Bestalde, aipa-

tu nahi nuke, taldean bi plazentziar ere aritu direla eta Dunixi Olabarria ere ibili dela, bera izan da bultzatzailea.

- Cojon Prieto y los Huajolotes-ek izan zuen arrakastaren ondoren, jendea rantxerekin asper samartuta bukatu zuela ez duzu uste?

- Guk une honetan jotzen ditugun abestiak jende guztiak ezagutzen dituzte eta jaiak alaitzeko primeran datoz, jendeak gustora pasatzen du. San Martinetan plazan zegoen udaltzaina ere dantzan jarri genuen! Huajoloteek, hasieran sekulako arrakasta izan zuten, baina urteak pasa ahala asperitzen joan da jendea.

- Zuzeneko emanaldietan jantziei eta arreta berezirik eskeintzen diozue?

- Orain arte eman ditugunetan sonbrero mexikarrekin irten gara. Aurrerantzean, serioago hasten garenean, guztiak traje berdinarekin irtetzeko asmoa dugu. Bestalde, rantxerak, erabiltzen dituzten letregatik, antzerkia egiteko aproposak dira eta eszenaratzea pixkat zaindu nahi dugu. Oraindik asmoak besterik ez dira.

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	27	9	47	11
2. ERROTAGAIN	25	10	43	18
3. JAUJA OH ZEREZOS	21	10	38	25
4. BAR CANALEJAS	19	8	32	21
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	10	33	36
6. MONGATXURRA	11	10	29	31
7. AZPEITXI JATETXEA	10	9	30	27
8. OSIZUN	10	10	27	33
9. ARLOTEAK/OILAGORRA	10	9	35	29
10. ORTZI	9	9	20	21
11. UFALA	8	9	27	33
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	7	11	19	49
13. PAGOMENDI	3	9	15	43

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	19	10	44	31
2. ETXAGI	19	10	43	32
3. EZINLEIKE	18	9	30	32
4. ARTUSAMAK BERGATRANS	17	9	30	20
5. UVE BIKOITZA JAM	16	9	26	32
6. SOROPOTROAK	14	10	26	17
7. HALTZARI	12	9	27	23
8. LA JUVE	11	10	26	26
9. AGIÑASPI	10	9	22	36
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	10	9	28	22
11. ERI	10	9	11	18
12. AUTOBEREZI	10	9	24	35
13. INDARGORRI	9	10	24	32

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	24	10	34	18
2. PJS	20	10	29	18
3. NEKROFIKOS	18	8	31	19
4. MOSKIS	18	10	30	22
5. JAKINA PATXARAN TEAM	17	9	26	19
6. TXIPIRON	16	11	31	38
7. FAC	16	10	42	25
8. IGANDEKOAK	14	10	22	28
9. NAHIKARI HOOLIGANS	11	9	19	27
10. EH BITERRAK	10	11	34	38
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	7	10	18	37
12. GANBARA	4	9	19	36
13. MRW	4	9	17	38

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARBE KIROLAK	28	11	60	26
2. MANITU	27	10	70	15
3. ETENGABE	22	11	35	15
4. OSINTXU	20	11	26	19
5. MATXAKATEGI	19	10	39	26
6. XURRUPAK	16	11	38	41
7. SLO	15	11	34	40
8. PANORAMIX	15	11	23	37
9. AMILOTX	13	11	26	37
10. PATA NEGRA	12	11	28	30
11. KOMANDO PIPERRAK	11	11	22	30
12. ALDOKA MALDOKA	8	11	26	40
13. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	10	16	50
14. PITIXAK	0	0	0	0

Jokozkanpo



Jabier Fernandez

IGANDEKOAK

ZER MODUZ TXAPELKETAN?

Geureari utsiz, ahalik eta partidu gutxien galduz.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, partidu osteko tertulia. Txarrena, oso gaizki jokutzen dugula.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, baloiari eskuarekin emateagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

17 eta 1 La Juveri.

ETA JASOTAKOA?

12 eta 1 Etxenagusiak.

ZE POSTUTAN ESPERO DUZUE AMAITZEA?

Erdialdean.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo eta Raul.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOA?

Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Denetik, baina gehien txuleta.

EMAITZAK

MADURA INDUSTRIAS GOI-A ZE FLAXA ETXAGI	1-6
UFALA-BAR CANALEJAS	1-2
ARLOTEAK OILAGORRA-OGIZUN	5-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-OH ZEROS	1-2
ORTZI-MONGATXURRA	3-3
ERROTAGAIN-AZPEITXI JATETXEA	4-3
SOROPOTROAK-UVE BIKOITZA JAM	0-5
INDARGORRI-AUTOBEREZI	1-3
ETXAGI-LA JUVE	3-3
IGANDEKOAK-CONSTRUCCIONES BERGARA	1-0
FAC-MRW	10-3
PANORAMIX-SLO	0-4
POLIDEPORTIVO TABERNA-XURRUPAW	2-5
PATA NEGRA-ALDOKA MALDOKA	5-3

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-MANITU • UVE BIKOITZA JAM
10:00: UVE BIKOITZA JAM-AUTOBEREZI • AMILOTX
11:00: EZINLEIKE-AGIÑASPI • AUTOBEREZI

Zapatuan kanpoan

10:00: ALDOKA MALDOKA-XURRUPAK • PATA NEGRA
11:00: PATA NEGRA-ETENGABE • ALDOKA MALDOKA

Domekan barruan

09:00: HALTZARI-AGIREBEÑA JATETXEA • ERI
10:00: ARTUSAMAK-ERI • AGIREBEÑA JATETXEA
11:00: GANBARA-EH BITERRAK • ARTUSAMAK
16:00: NEKROFIKOS-MOSKIS • ETXAGI
17:00: ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS • MOSKIS
18:00: OSINTXU-PANORAMIX • SLO
19:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-SLO • PANORAMIX

Domekan kanpoan

09:00: BILDURBAREK OPEL/LAM-PAGOMENDI • OH ZEREZOS
10:00: JAUJA OH ZEREZOS-A ZE FLAXA • PAGOMENDI
11:00: ANGIOZAR-BAR CANALEJAS • A ZE FLAXA ETXAGI
16:00: UFALA-AZPEITXI JATETXEA • IGANDEKOAK
17:00: IGANDEKOAK-PATXARAN TEAM • UFALA
18:00: MATXAKATEGI-KOMANDO PIPERRAK • PATXARAN T.

ESKOLA KIROLA

10:00: MP-INSTITUTUA
10:00: M.LAGUNDIA-VALTER
11:00: LTB-ANTITODO (NESKAK)
11:00: PWS-BBB 2 "B" (NESKAK)
12:00: LOS TXISTIS-MIGUEL ALTUNA

PARTIDU GUZTIAK

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN JOKATUKO DIRA ZAPATUAN

T XINPARTAK

Saskibaloia partidu garrantzitsua

BKEko senior mailako saskibaloia taldea bere mailako liderra da oraindik partidurik galdu gabe. Larunbatean arratsaldeko 4,15enetan 2. doan Eskoriatzaren kontra jokatu du. Eskoriatzarrek BKEren aurka galdu dute bakarrik eta BKEkoek partidua irabaziko balute mailaz igotzeko aukera handiak izango lituzkete.

Aranzabal Lagunartearekin Logroñora

Aranzabal Lagunarteak Realak, Logroñesen aurka datorren igandean Logroñon jokatu duen partidua ikustera joateko autobusa antolatu du. Izen-ematea 764699 (Jabi) telefonoan igandea baino lehen.

Infantil mailako Gipuzkoako igeri Txapelketa asteburuan Bergaran

Gipuzkoako infantil neguko igeri txapelketa jokatu da asteburuan Bergara Igeri Elkar-teak antolatuta. Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur, Eli Alberdi eta Jon Sasigain izango dira Bergara Igeri Elkartea ordezkatu duen igerilariak.

Dominak lortzeko aukera

Astearte arratsaldeko entrenamenduan harrapatu genituen igerilari gazteak eta Leire Zeziaga entrenatzaileak esan ziguzue: *"Azkenaldian igerilari batzuk gogo gutxirekin ari dira entrenatzen, baina uste dut zerbait egin dezaketela. Eneritz Muguruza Espainiako 100 metro krol txapelketarako sailkatu da eta beste 3 probetan gutxieneko marka egiteko aukera du. Gaintzeko igerilariak Euskadiko txapelketarako sailkatzeko aukera handiak dituzte".*



Bergara Igeri Elkarteko infantil mailako igerilariak.

Igrilekuak itxita

16:00etan Zapatuko probak goizeko 10etan hasiko dira eta arratsaldetan, berriz, arratsaldeko eta igandekoak goizeko 10etan. *"Igerilari asko etorriko dira, Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko ez baita marka onegirik behar, baina asko saiatuko dira hurrengo asteburuan Euskadiko txapelketak jokatu dira*

eta" esan digu Zeziagak. Muguruza martxoaren 7 eta 8an Galizan dagoen Xove herrira joango da Estatu txapelketan parte hartzeko; eta, agian, gutxieneko denbora lortzen badu, Antxon Maiztegi ere izan daiteke txapelketa horietan.

Zapatu eta domekan, igeriketa frogak direla eta, piszinak itxita egongo dira ohiko erabiltzaileentzat.



Partidua hasi aurretik bi taldeetako jolaskari eta entrenatzaileak bildu eta argazkia atera genien.

Antzuola garaile derbian

Antzuolak 1 eta 0 irabazi zion Bergarari joan zen zapatuan jokatu duen lehen maila erregionaleko partiduan. Lehen zatia nahiko orekatua izan zen antzuolarrek korner bati esker gola lortu zuten arte. Bigarren zatian antzuolarren nagusitasuna erabatekoa izan zen eta Mikel Larrañaga, "Maki"k aukera garbi ugari izan arren ezin izan zuen BKEkoen atea zulatu. Partidu amaieran Antzuolatik etorritako ikusle piloak pozik azaldu zen lortutako emaitzarekin. Partidu horren ostean BKEk igotzeko fasea sailkatzeko aukera asko galdu ditu. Antzuola berriz 2. postuan dago.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Zumaiako

Ohorezko maiklako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

◆ Bergara-Soraluze

Lehen mailako kadeteak.
2. mailako jubenilak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Elgoibar

Jubenil mutilak.
Zapatua. 19:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Almen

Kadete mutilak.
Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

◆ Bergara-Leizaran

Jubenil neskek.
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

◆ Bergara-Zaramaga

Juniorrak.
Euskal Liga.
Eguakitza. 22:00.
Udal Pilotalekua.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Eskoriatza

Senior mutilak.
Zapatua. 16:15.
Kiroldegia.

◆ Bergara-Urbina Maltzaga

Junior mutilak.
Domeka. 11:30.
Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Santo Tomas Lizeoa

Kadete mutilak.
Zapatua. 10:00.
Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Antzaran

Kadete neskek.
Zapatua. 12:15.
Kiroldegia.

Francisco Perez

Arko tiraketa irakaslea

Francisco Jose Perez aste honetan hasi da arko tiraketa klaseak ematen poligonoko Aranzadi ikastolako gimnasioan. Perez bilbotarra da eta 8 urte daramatza arko tiraketa egiten.

- Zergatik antolatu duzue ikastaroa Bergaran?

- Miguel Galvan karate irakaslea ezagutzen dut eta berak esan zidan ikastaroa antolatzeko Bergaran. Otsailean beste ikastaro bat egiteko asmoa dugu eta jendea animatzen bada elkarte bat sortzeko helburua jarri dugu. Legazpin, Beasainen eta Donostian badaude klubak eta Arrasaten sortzekotan omen dabilta. Elkarte guztiakin Gipuzkoako liga bat egitea polita izango litzateke.

- Zelakoa izan da jendearen erantzuna?

- 7 lagun apuntatu dira eta erantzun nahiko ona izan da lehen aldia izateko. Guztiak 25 urtekin gorakoak dira.

- Arkoa erabiltzen ikasteko zenbat denbora behar da?

- Gutxi gora behera 10 ordutan oinarrizko teknika, arkoaren mantentzea eta beroketa arketak ikasi daitezke.

- Zer da ikasteko nekezena?

- Nekezena teknika hartzea da. Horrez gain beldurra kentzea ere komenigarria da, baina ikastaroen helburua jendeak ikastea eta ondo pasatzea da.

- Edozeinek egin dezake arko tiraketa?

- Bai, kirol hau egiteko ez dago adin mugarik. Futbolekin 16 urterekin hasten zara eta 32rekin zaharra zara. Arko tiraketan 50 urterekin maila ona eman dezakezu.

- Indarra, ikusmena, punteria... zer da garrantzitsuenak?

- Batez ere burua ondo edukitzea da garrantzitsuenak. Halaber, kontzentrazioa eta lasaia izatea ere oso garrantzitsua da.

- Arkoa erabiltzeko zenerri hartu behar dira?

- Arkuarekin ibiltzeko lizentzia atera behar da

eta ikastaro batzuetan parte hartzea ere eskatzen da.

- Materiala garestia da?

- Ez, 12.000 pztatik arkuak, fletxak eta bisorea eros daitezke. Lehiaketetan aritzeko materialak, gutxienez, 30.000 pztatik gora balio ditu.

- Aretotik kanpo aritzen zarete?

- Bai, denboraldia otsailean hasten da eta 90 m-ko distantziatik botatzen dugu dianara. Fletxak orduko 300 km-tik gorako abiadura har dezake. Zaila dirudien arren arkoa erabiltzea ez da oso zaila.



"Zaila dirudien arren, arkoa erabiltzea ez da hain zaila".

"Gure asmoa Bergaran arko tiraketa elkartearen sortzea da"



Argazkia: Josu Lazpiur

Lehen Erregionaleko Bergara. 1953.

Bergara Kirol Elkarteko 1953ko futbol talde nagusiaren argazkia ekarri dugu aste honetan Erreturatu Zaharrera. Taldeak lehen erregionalean jokatzen zuen orduan (gaur egungo preferentea) eta argazkian agertzen ez bada ere, Andres Alzelai zen entrenatzailea. Partiduak normalean Agorrosinen jokatzen baziren ere, argazkia Labegarietako futbol zelaian aterata dago, urte haretan Agorrosin zulatuta zegoelako. Partidu ugari jokatu ziren orduan, gaur egun desagertuta dagoen Labegarietako futbol zelaian.

Honako hauek dituzue argazkian agertzen diren 1953ko lehen erregional mailako C.D. Bergara ostutzen zuten taldeko jokalaririk. Ezkerretik hasita:

Zutik: Jabier Muruamendaraz, Josu Lazpiur, Jose Mari Ugalde, Anastasio Misol, Ramon Etxaniz eta Jabier Zabaleta.

Makurtuta: Francisco Aranzabal, Alberto Presa, Luis Larrañaga "Kikio", Esteban Arietaleaniz "Uritxa", Jabier Lazkano eta Jose Luis Sanz.

Industria
hornikuntzak

U
UNIFE

Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08




San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzitu
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 Telefonoa: (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

*Euskalduntze eta EGA
ikastaroak (otsaila-ekaina).
Plazak dauden taldeetan
integratzeko.
Matrikula zabalik*



UDAL
EUSKALTEGIA

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 Bergara
Telefonoa eta faxa: 76 44 53

MATRIKULALDIA
Urtarrilaren 20tik
31era arte.

BULEGO ORDUAK
Goizez: 8:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-18:30

16 URTEZ GORAKOENTZAT
Bekatzeko sistema eta diru
laguntzak ditugu.



BEHERAPENAKI!

**UNITED COLOR
OF BENETTON**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATI